

2. - AURREKOA. LURRALDE PLAN SEKTORIALAREN AURRERAPENA

Dokumentu honetako Planak lehen fase bat izan du, eta bertan Planaren Aurrerapena egin da. Indarrean dagoen Lurralde Antolamendurako Euskadiko Legeko (ELAL) Lehen Xedapen Gehigarrian analogia ezartzen da, Legeak berak Lurralde Plan Partzialei buruz aurreikusten duen prozedura, eta Lurralde Plan Sektoriala egin eta prestatzeko prozeduraren artean. Horrela, hasierako onarpena eman aurretik, Aurrerapen bat egin zen. Aurrerapen hori Lurralde Administrazio Publiko interesatuei igorri zitzairen, bi hilabeteko epean oharrak, iradokizunak, alternatibak eta proposamenak aurkez zitzairen. Fase hartan, hogeita hemeretzi (39) alegazio jaso ziren:

Administrazioetakoak:

Udalak: 18

Lurralde Antolamendurako Zuzendaritza: 1

Ingurumen Sailburuordetza: 1

Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurune Naturalaren Antolamendurako eta Ikerketarako Zuzendaritza: 1

Foru Aldundiak: 3

Administrazio Batzordeak: 1

Beste batzuk:

Batzar Nagusietako talde politikoak: 1

Udaletako talde politikoak: 8

Talde ekologistak, eta beste talde batzuk: 5

Alegazio haiek ikusita, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak txosten bat egin zuen eta aurkeztutako oharrei eta iradokizunei erantzun zien. Espediente osoa Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorri zitzaion. Batzordearen otsailaren 15eko 1/2001 Bilkuran hau izan zen, besteak beste, bertaratu zirenek (batzordekideen gehiengo absolutua) ahobatez hartu zuten ERABAKIA:

"I.- Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapenaren espedienteari buruz informatzea, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Gaietarako Batzorde Delegatuak xedatutakoaren arabera:

1.- Plana bat dator Lurralde Antolamendurako lldoen filosofiarekin; zehatzago esanda, 13. Kapituluko 1.o puntuaren filosofiarekin, energia alternatiboak eta, bereziki, eolikoa aprobetxatzeari eta bultzatzeari dagokionez. Kapitulua hori garraio, komunikazio eta energia azpiegiturei buruzkoa da.

2.- Ez dago kontraesanik Planaren eta EAEko Ibai eta Erreka Bazterren Antolamendurako Lurralde Plan Sektorialaren artean, Plan horien aplikazio eremuak desberdinak direlako. Azken Plan hori da behin betiko onartua dagoen Lurralde Plan Sektorial bakarra.

3.- Planaren eta Eusko Jaurlaritzako Sailek sustatze eta onartze bidean dituzten beste Lurralde Plan Sektorialen artean ere ez dago kontraesanik. Plan horiek dira EAEko Trenbide Sarearen LPS, Zona Hezeen LPS eta Itsasertzaren Antolamendurako LPS.

4.- Planaren behin betiko dokumentuan aplikazio eremua garatu beharko litzateke, objektuari eta eremuari dagokionez eremu itxia delako. Teknologia aurrerapenak direla-eta Planaren abiapuntu oinarriak zalantzan nabarmenki jartzen badira, Plana berrikusi egingo da.

II.- Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari igortzea Kultur Ondarearen Zuzendaritzak eta Ingurumen Sailburuordetzak emandako txostenak. Txosten horiek ziurtagiri honen I. eta II. Eranskinetan daude, hurrenez hurren."

Planaren Aurrerapenari dagokionez, Plana jendaurrean egon denean Lurralde Administrazio interesatuek aurkeztutako iradokizunak eta proposamenak jaso dira, eta baita xehetasun batzuk ere. Eta haxe da, batik bat, iradokizun eta proposamen horien ondorioz egingo dena:

- LPSk markatzen duen eremuko parke eolikoak ez dira ezarriko Planean bertan izendatzen ez diren kokalekuetan, nolaz eta lurralde antolamendurako tresna hau aldatzen ez den.
- Parke eolikoa sustatzen duenak Ingurumen Inpaktuari buruzko azterketa aurkeztu beharko du, Euskadiko ingurumen organoak ebalua dezan, Ingurumen Sailburuordetzak emandako datuekin batera.
- Urtero egokitu egingo dira parke eoliken kopurua eta baimenduko diren potentziak, energia plangintzaren helburuen arabera.

Hori guztia kontuan izanda, dokumentu hau egin da. Dokumentuari hasierako onarpena emateko akordio proposamenari buruz Lurralde Antolamendurako Batzordeak bere txostena, nahitaezkoa, egingo du.